


ARRASATE

PRESS

Arrasate 1992ko Martxoak 27, 144. zenbakia

Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean



ERAMAZU.

1.323.300 PTAtik hasita

Clio **S** 92 c.v

Orain, 5 atekoa ere.

**RENAULT
MECA S.A.
ARRASATE**



**IREKI
BERRIA!!!**

SORALUZE OSTATUA

- Jangela handiak
- Logela ederrak zerbitzu guztiakin
- Eguneko menua eta karta
- Ezkontzak, banketeak, bataioak,
enpresako bilerak...

Arantzazurako bidea z/g
Tfnoa: 71 60 70 Faxa: 71 61 79
OÑATI

ARRASATE PRESS

ASTEKARIA

Argitaratzailea:

Arrasate Press taldea (AED)
Azoka kalea, 1 20.500 ARRASATE.
Tfnoa: 77 05 65 Faxa: 77 09 40

Laguntzailea:

Arrasateko Udala

Zuzendaria:

Arantzazu Loidi

Erredakzioa:

Beñardo Kortabarria, Rosa Mondragon.

Publizitatea eta harpidetzak:

Kepa Oliden. Amaia Sanz
Tfnoa: 77 08 15

Maketazioa:

Goio Arana

Erredakzio-kontseilua:

Jose Felix Diaz de Tuesta, Harry Zاراia,
Asier Aranguren, J. Velez de Mendizabal.

Kolaboratzaileak:

Mikel Irizar, Eukeni Olabarrieta, Arantxa Lizaso, Gerardo Markuleta, Blanka Jauregi, Joseba Vallés, Karmelo Uribarren, Hankamotz, Atalataikoan, ASA taldea, Xabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Andoni Urzelai, Koldo Rodriguez, Jon Andueza, Udako Ingurugiro Eskola, Juan Bautista Agorria, Leintz Bertsoskola.

Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)

Banaketa arduraduna:

J. L. Arejolaleiba

Copyright:

ARRASATE PRESS

Tirada: 5.800 ale

Lege-Gordailua: 1124/88

ISSN: 0214-4654

Frankeo kontzertatua: 37-60

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esaneren eta eritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailaren laguntza jaso du.



ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Patuaren indarra

Alemaniar Kolonia hiriko hotel baten bakardadean izkiriartzen ditut lerro hauek, aspertuta, lan egun zaratatsu eta luze baten hondarretan. Lo egin nahi nuke baina ezin dezaket, nekeak eragozten bait dit atsadena. Telebistak nazioarteko irudi batzu ekarri dizkit, hitz banaka batzu gehiagorik ulertzen ez dudana hizkuntzaz zerbitzatuta. Itzali egin dut aparailua.

Margarete Mitscherlichen "Nigar egiteko ezgaitasuna" liburuari gainbegirada arina eman diot, ur sakonetan sartzeko gogorik gabe. Edozer motatako faxismoaren kontrako kanta batzu aurkitzen dira, alemaniar psikoanalistaren maixutasunez azalduta. Baina nire izpiritua ez dago gaur helburu nagusitarako eta, egileak damaigun "oroimenak iragan okerretik aska gaitzake" mezu orokorraren sentimenduaz bat eginik, liburua itxi dut, ostera telebista pizteko.

Kirol-saio bat ematen ari dira. Europako futbol txapelketa baten irudiak agertzen dira, laburpen gisa:

Barcelona eta, orain gogoratzen ez dudana beste talde baten arteko norgehiagoketa. Alemaneraz ziren erizpideak eskaintzen ari eta "hartu" ahal izan dudana berba bakarretakoa hauxe izan da, euskarara itzulita: talde katalandarra. Geroago golfari espainiarra, erizlearen esanetan.

Eta nire bamea errebelatu egin da. Non arraio oinarritu da lokutorrea, bata katalandar eta bestea espainiarra bataiarazteko? Zer mekanismo eramango zuen kirol-esataria halako bereizketa egitera?...Nire buruari inolako erantzunik ezin emanez, egun hauetako goizetan hoteleko jangelan, gosaltzen ari garen bitartean, katalandarrek katalaneraz, euskaldunok gaztelaraz. Eta etsipenak eguneko azken unea gainezka ez diezadan, tele katea aldatu dut. "Indio" Fernandez mexikarraren pelikula bat ematen ari ziren, germaniar hizkeraz eta azpitolorik gabe. ETBk "Erreztasun" gehiago ematen ditu, "en la vasca".

JOSEMARI VELEZ DE MENDIZABAL

Memesa
79 42 22



Zatoz gure gazte moda ezagutzera

Italora Lizentziatua, 5
Tfnoa: 77 00 81
ARRASATE



gili gili

Iturriotz, 9 Tfnoa: 79 94 57



Liburu eta paperdenda
Bidaiarako eta larruzko artikuluak

Iturriotz, 4 Tfnoa 79 14 84



DANKAIR'T


Estetika eta lleapaintzaile
Eskola

M.E.C.-ek homologatua

Bittor Sarasketa, 7-3.
Tfnoak: 12 15 18 / 12 71 52 EIBAR

ARAMAIO
okindegia

Maisu Guridi, 3
Tfnoa: 79 36 46



Kontzezlfo, 2
ARRASATE
Tfnoa: 79 14 06

Excavaciones Besaidek EKlri

Talde ekologista batengandik orokorrean espero izan daitekeena, bere indar guztiarekin naturaren oreka optimoa zaintzea da, naturarengan egiten direnak ahalik eta zuzenenak eta arlo ezberdinetan ahalik eta kalterik gutxien egiten dutenak izan daitezen saiatzea.

Talde ekologista, politiko edo antzeko batengandik ongi informatuta egotea espero behar da gutxienez, izan ere, talde jakin baten sigletan babestutako pertsona batek, inolako oinarri barik taldeko beste partaide guztiak inplika bait ditzake. Arrasateko EKlrena jartzen dut adibide gisa, joan zen asteko Inguru-giroa sailean E.C. hizkiekin artikulua sinatu zuenak zioen bezala, Hueskako prentsara Valles izeneko batek filtratua hitzez hitz traskribatu bait zuen.

“Zer egiten dute euskaldunek Euskaditik kanpo” jarri diote izenburu EKlkoek, kazetaritzaren mundu konplexu honetan hainbeste agertzen diren horietako batetan. Izan ere, dagoeneko ezin gara harritu edozein egunkaritako edozein oharretan zuhaitz berari buruz milaka eritzi agertzeaz, gero lehio bati buruz, gero uste dugunari buruz... egin daitekeela esaten duena, egin zitekeena, egin ezin dena... eta, jaunak, horrek ez luke amaierarik, oharrak gehiago lirarteke, kolore askotakoak, lekuetako gauza askori buruzkoak, eta zuhaitz bat landatzera basora joandakoei azkenean materiale erradiaktiboa botatzeaz salatuak izan direla ikusiko dute... zeren...

Nire helburu bakarra EKlri honako hau adieraztea da:

- Iharduerako esparru guztiarentzat Aranzadik egindako ingurugiro-eraginari buruzko ikerketa dagoela.

• Inguru hartan diharduten talde ekologistei edo halakotzat hartuta dauden guztiei, ikerketa horren kopia bana banatu zaiela.

• Ikerketaren kopia edozeinek begiratzeko moduan dago hango Udaletxean.

• Mendiur-en zein Besaideren lana ez dela batere aldentzen Aranzadik egindako txostenetik.

• Sekula ez dela egon aipatutako Buldozer talderik.

• Leku hartara joanez egin ditudan ai bi urteetan zehar, ez dudala hegazti, animalia edo piztirik ikusi, ez dago eta.

• Irakurlea engainatzen ari zaretela eta uste dut ez duela horrelakorik merezi.

MIGUEL ZUBIA EXCAVACIONES
BESAIDEKOA

Oharra:

Gure erredakziora etortzen diren gutunak ikusita, honakoa gogora arazi nahi genioke irakurleari: Aldiko ahalik eta gutun gehien argitaratu ahal izan dezagun, 20 lerro baino gutxiagoko kartak idaztea eskatzen dizuegu. Argitaratzerakoan gaitzizena edo siglak erabiliko badira ere, ez dugu behar den bezala identifikatu gabe iritsitakorik argitaratuko (N. A.ren zenbakia eta izen deiturak jarri).

Zuzenketa:

Hamaika arrasatearren aurka egindako epaiketaz emandako informazioa ez zen zuzena. Epailearen sententziak, 3 aske uzten ditu, 4 isuna ordaintzera behartu eta gainontzeko 6entzat bederatzit hilabeterako gartzela zigorra. Hala ere, fiskalak errekurritu egin du erabakia.

MUXIBAR TABERNA

Ezin hoberik inguruan topatu!

Bizkaia Etorb. Tfnoa: 79 09 75 ARRASATE

Nola konponduko zenuke aparkalekuen arazoa?




**Jose Luis
(Erizaina)**

Aparkaleku gutxi daude eta gehiago jarriko nituzke; non ez dakit, toki gehiegi ere ez dago eta.




**Amalia Espejo
(Zerbitzaria)**

Aparkaleku gehiago egin beharko lituzkete; beharrezkoak dira eta.




**Begoña Barron
(Etxekoandrea)**

Arazo latza dago Arrasaten, garajerik ere ez dago eta. Herritik kanpo aparkalekuak egin beharko lirateke, baina seguruen jendea ez litzateke autoa hain urrun lagatzeko prest izango.



**Fernando Aguriondo
(Jubilatua)**

Autorik ez daukat eta beharrik ere ez, beraz ez zait bat ere ardura. Auto piloa ikusten da, ez dakit jendeak autotetarako nola duen horrelako zaletasuna.



**Andoni Villar
(Irakaslea)**

Arazo handia dago eta iruditzen zait jendeak autoa ahalik eta gutxien erabili beharko lukeela, bestela oso zaila ikusten dut, lur azpiko aparkaleku batzuk egitea ez bada...



**Esther Merino
(Psikologoa)**

Ahal duten tokietan aparkalekuak egitea eskatuko nuke, doanekoak, noski.

HOSTAL LASA

Jatetxea

Ostiral eta larunbatetan gauetz zabalik.
Astelehenetan: itxita

Bidekurutzeta, 36 Tfnoak: 76 10 55 / 76 20 29
BERGARA

BEHARREZKO TELEFONOAK

ERITETXEAK

Arrasateko Eskualde-Ospit	79 53 00
Igualatorria	79 05 00
Santa Agedako Ospitalea (gizonak)	79 39 00
(emakumeak)	79 44 11
Buru osasunerako zentrua	79 90 11

GURUTZE GORRIA

Bergara	76 55 76
---------	----------

DYA

Antzuola	76 62 91
----------	----------

ANBULATORIOAK

Arrasate (Larnaldiak)	79 13 57
(Txanda hartzeko)	77 03 46
	77 07 21
Oñati	78 08 52
Eskornatza	79 98 58
Aretxabaleta	79 74 58
Aramaio (945)	45 51 16

ANBULANTZIAK

Gipuzkoako ambulanziaz	45 87 44
------------------------	----------

UDALTZAINGOA

Oñati	78 04 11
Bergara	76 14 69
Arrasate	79 14 39
Aretxabaleta	79 10 52
Eskornatza	79 03 22

ERTZAINZTA

Arrasate	79 71 99
----------	----------

SUHILTZAILEAK

Udal taldea	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua	79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea	78 28 00

MATXURAK

Urak (udal zerbitzua)	79 09 00
Elektrizitatea (iberduero)	79 05 81
Gasa	900 40 05 23
	79 78 44
	79 76 78

GARRAIOAK

Taxiak	79 12 22
P.E.S.A.	79 14 19

HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ZENTRUAK


Iturbide Egoitza	79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza	79 81 57

KONTSUMITZAILEARENTZAKO INFORMAZIOA

Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarte	79 87 77
KIUB-OMIC	79 51 55

MONTEARRONGO LIBURUTEGIA

Monterron	77 01 05
-----------	----------



27

OSTIRALA

- Zinea: Alai: "Morir todavia" (5-7.30-10).
- 1992ko Aurrekontuei buruzko Udal plenoa, arratsaldeko 7etan.
- Hitzaldia: "Ernazimendua" Yoga Elkarteak antolatuta, Monte-rronen arratsaldeko 6.30etan.
- Goardiako farmazia: Corcuera, Musakola.

28

LARUNBATA

- Zinea: Alai: "Morir todavia" (5-7.30-10)
- AEK Jiraren inguruan haur jolasak, hanka paluak, buru-handiak, bertsolariak, trikitalariak eta txokolatada, arratsalde osoan zehar.

Kirio Agenda

Pilota

- Deba Arroa txapelketaren barruan Arrasate - Bergara, igandean Iturripen goizeko 11etan.

Futbola

- Mondra-Abetxuko, igandean Atxabalpen arratsaldeko 4etatik aurrera.
- Mondra-Zumaiako, emakumezkoen partida, igandean goizeko 11etatik aurrera.

Futbito

- Zaldibarko futbito txapelketaren barruan hamabi partidu larunbata eta igandea bitartean.

- Kontzertua Gaztetxean: "Beer Mosh" "Child Abuse" eta "Vitus Dance" taldeekin, gaueko 10etatik aurrera.
- Goardiako farmazia: Aurora Ruiz, Maala.

29

IGANDEA

- Zinea: Alai: "Morir todavia" (5-7.30-10)
- AEK Jiraren inguruan erromeria Txinparta taldearekin, arratsaldeko 7etan.
- Goardiako farmazia: Morales, San Andres.

30

ASTELEHENA

- Zinea: Alai: "Morir todavia" (5-7.30-10)

- IMI zentruan Autocad ikastaroaren hasiera.
- Hitzaldia: "Mertzedariak herri eleizaren barne eta ebanjelizazioaren desafio berriak", M^a Josefa Larragaren eskutik. Mertzedarietan 18.45etan.
- Analisi bioenerjetiko ikastaro praktikoa, AEDn arratsaldeko 4etan.
- Goardiako farmazia: Azkoaga, Ferrerías.

31

ASTEARTEA

- Zinea: Alai: "Morir todavia" (5-7.30-10)
- Hitzaldia: "Industrial horizontea 2.000. urtean", Jesus Larrañagaren eskutik. Mertzedarietan 18.45etan.
- Arko-ren Batzar Orokorra
- Goardiako farmazia: Español, Iturriotz.

1

ASTEAZKENA

- Hitzaldia: "Hezgarri horizontea 2.000. urtean", Pedro Mendietaren eskutik. Mertzedarietan 18.45etan.
- Goardiako farmazia: Egunez: Corcuera, Musakola. Gaez: Mozos, Bergara.

2

OSTEGUNA

- Gantxilo ikastaroa, AEDn arratsaldeko 3etan.
- Hitzaldia: "Mertzedarien presentziaz 100 urte Arrasaten eta emakumearen papera 2.000 urtean", Alfonso Gorroñoigoitia eta Ester Larrañagaren eskutik. Mertzedarietan 18.45etan.


Hitzaldiak

• Historia

Datorren asteartean, martxoaren 31an "Bergara Hiria Erdi Aroan" izeneko hitzaldia izango da Bergarako Kultur. Gazteleraz izango da, Amaia Basterretxearen eskutik. Ostegunean ere beste bat izango da: "Bergarako udalerriko ingurune fisikoaren azterketa", Jose Migel Edesoren eskutik. Datorren asterako ere badaude beste bi antolatuta, astearte eta ostegunerako.


• Mertzedariak

Datorren astelehenean hasten da "La Merced" ikaste-txean aste soziokulturala. Hau dela eta, ostegunerarte eta arratsaldeko 6.45etan hitzaldi sorta bat izango dira. Astelehenean "Mertzedariak herri eleizaren barne eta ebanjelizazioaren desafio berriak" Maria Josefa Larragaren eskutik, asteartean "Industrial horizontea 2.000 urtean" Jesus Larrañagarekin, "Hezgarri horizontea 2.000 urtean" asteazkenean, emalea Pedro Mendieta izanik eta "Merzedarien presentzia 100 urte Arrasaten eta Emakumearen papera 2.000 urtean" ostegunean, Alfonso Gorroñagoitia eta Esther Larrañagarekin. Hauxe gain pailazoak, kontzertuak, haur jaialdia eta abar izango dira.



• Garizuma

San Juan Bataiatzailearen Parrokian garizumako hitzaldi sorta hasi da aste honetan.



Preso guzten alde otoitza

Arantzazuko Santutegian astebukaera osoz

Euskal Herriko kristau elkarte herritarrak eta apaiz koordinakundeak, astebukaera osorako otoitz egitaraua antolatu du Arantzazuko santutegian. Gaur, presoekiko elkartasuna erakusteko, baraualdia egiten ari da. Biharko berriz, erreflexio eta otoitz gaubeila Kriptan. Presoen egoera aurkeztuko da eta fedearen ikuspuntutik gogoetak eskainiko. Ondoren, bertan tratatutako gaiak komentatuko dira partehartzaileen artean.

Igandea izango da azken eguna. Goizeko 11etan eukaristia ospakizuna izango da Kriptan. Horretarako preso batzuen eta euren senideen lekukotasuna izango da aurrez aurre. Era berean, euren aldeko diru bilketa egingo da.

Larunbatean, gaubeila ondoren eta nahi duenentzat badago Hospederian edo Sindikan lo egiteko aukera. Horretarako erreserba egitea beharrezkoa da, telefono honetara deituz: 78 13 13 edo 78 13 14. Bestalde lozakuan gaua pasa nahi dutenek ere izango dute toki egokia.


Gainera ostegunero, arratsaldeko 9etatik 10etara, Parrokian bilera batzuk izango dira. Jose Mari Setien Pastoralaz aztertu eta otoitz egitea izango da kasu hauetan helburu nagusia.

• Pakea

"Pakea gaur Euskal Herrian" izenpean, datorren apirilaren 1ean eta 2an hitzaldi batzuk izango dira Udaletxeko Pleno Aretoan. Arratsalde 7etan izango da eta hizlariak J.M. Astigarraga asteazkenean eta Martin Orbe ostegunean. Aztertuko diren gaiak kristautasunetik nola gizarteratu eta pakearen beharra izango dira batez ere.

• Espezien desagertzea

Datorren asteazkenean, apirilak 1ean arratsaldeko 7etan, espezien desagertzea buruz, hitzaldi bat izango da Monterronen EKI taldeak antolatuta. Alfredo Rueda izango da hizlaria, ANAT-LANE talde ekologista naparreko ordezkaria.



Lehiaketa

• Literatura

Datorren apirilaren 21an bukatuko da Bergarako Udalak antolatu duen literatur lehiaketarako lanak aurkezteko epea. Euskara eta Hezkuntza batzordeak atera dituzte jadanik baldintzen zerrenda; inportanteena euskaraz eta argitaragabeko lanak izatea da.

Kirola

• Zikloturisten irteera

Urtero bezala Deba Garaia txirindulari elkarteko partaideek hasiera eman diote aurtengo zikloturismo denboraldiari. Igande honetan Arrasatetik Debaraino joango dira, gero bueltan etortzeko, guztira 74 kilometrotako ibilbidea. Txirindulari taldekoekin atera nahi duenak goizeko 10etarako geltoki zaharraren aurrean egon beharko du.



• Gipuzkoako Itzulia

Aretxabaletako Murruxio Mendizale elkarteak, 29, igande honetarako ibilaldia antolatu du Arritxulegi-Hondarribi itzulia egiteko.

Ibilbide honen irteera goizeko 9etan izango da eta buelta berriz arratsaldez. Bazkideek 800 pezeta ordaindu beharko dute eta besteek 1000 pezeta autobuserako.

“Argi dago ATB ikusten dagoen norbait ezin daitekeela aldi berean beste telebista kate bat ikusten ari. Beraz, alde honetatik konpetentzia badago. Baina beste kate horien osagarria ere bagara. Adibidez ETBn mundu zabalean ematen diren albistek jaso ditzake irakurleak eta ATBn, berriz, herriko informazioa. Beste alde batetik ere osagarria da. Hainbat jende ez dago telebista euskaraz ikustera ohitua, baina ATBren hurbiltasuna dela eta, telebista ikusten hasten da. Argi dago pertsona hauek ATBren emisio orduak amaitzean beste kate batera jo dezaketela”.

(Jon Anduezak Argia astekarian. 1992ko martxoak 8)

“Rip-ekin batera, badira Arrasaten eta Deba Garaian beste musika talde batzuk ere, SS-77, DDDP, Malaña, Zakarrak eta Heriotza. (...) Beste talde batzuk erabat ezezagunak dira euren gaztetasuna dela eta: Arsenal, More Beer, Cirtos, Conflict, Bah!, Distant Terror, Concella de Hierro, Mortuorio, Ms edo Child Abuse. Deba garaiko musika taldeetan lehen gehien ikusten zena punka bazen, labekada berriek heavya darabilte gehienbat.

(...) ‘Gaur egun dagoen arazoa taldeen saturazioa da, eta nola gehienok asteburuetan bakarrik entsaiatzen dugunez, iladan zain egon behar’.

(...) ‘Mobida bat hil egin da (rock radikal euskalduna) eta oraindik ez da besterik jai. Orain hasten diren taldeek haserako askoz maila hobea dute orain urte batzuetakoek baino. Gaur egun ezin izango litzateke ulertu RIP, Cirrosis edo Vioch-R bezalako talderik sortzea. Gaur, egiten den musika oso gogorra izanagatik ere, sekulako musikotzarrak daude horren atzean’ eta Soziedad Alkoholikaren kasua aipatzen dute”.

(J.L. Azkaratek El Correo. 1992-3-23)

Nolakoa izan da euskararen gorakada San Andres Herri Eskolan?



15 urte euskara lantzen jardun ondoren, konturatu gara hurrek zenbait eta gai gehiago euskaraz jorratu, euskara hobeto menperatzen dutela eta euskararekiko motibazioa eta jabetasuna askoz ere handiagoak direla. Erreflexio gogor batzuren ondorioz eta Marian Bilbatua hizkuntz ikerlariaren laguntzarekin, aurtengo ikasurtean jadanik eskolaurretik hasita, Murgiltze Ereduan irakasten hasi gara. Hau da, euskara hutsean egiten den metodologia eta haur erdeldunei zuzendua, baina ondo sistematizatuta, sekuentziazatuta eta maila bakoitzari dagozkion xede eginkizunak eta helburuak zehaztuta.

Dударik gabe irakaskuntz kalitatea ziurtatzen du horrek, irakaslego preparatua eta errezikatua. Irakaskuntzaren teoria eta praktika ez da sekula amaitzen eta horretarako ematen den berrikuntza gureganatzeko prest egon behar dugu beti.

Ikasgura hau asetze arren, esan dezakegu irakaskuntza inguruan azkenengo hamarkadan eman diren berrikuntzetaz jabetzen garela eta jabetzen jarraituko dugula: inguruan ematen diren hainbat ikastarotan parte hartu dugu. Ikasturte honetan Eskoriatzan eman den Nazio-arteko Haur “Hezkuntzarako Euskararen Metodologia” ikastaroan ere izan ginen, Sitgeseko mintegian “Bigarren Hizkuntzarekiko” jardunaldietan ere bai.

Honela bada, ezin daiteke esan Herri Eskolak ez direla aldatu, askok aitortu nahi ez arren.

Baina gure itxaropena da, irakaskuntza barnean dabil-tzan ikerlariak aitortzen dutena, egun batean herriko jende xeheak ere ulertuko duela.

ARANTZA BARRUTIA

SAN ANDRES HERRI ESKOLAKO IRAKASLEA


Berango



Sukalde-altzariak, mahaiak eta aulkiak

Erakusketa: Legarre pabiloia z/g, Gipuzkoa etorb. Tfnoa: 79 01 92 ARRASATE

PUB HAIZEA



Pando

PINTURAK eta PAPERETAPENAK

Aragoi, 6-3. Esk.

ARRASATE Tfnoa: 77 00 39



San Viator Ikastola

**50 urtez pertsona osoa eta
pertsona bakoitza hezitzen**

1. Mailako Hezkuntza



- * Eredu euskaldunak:
- * Ingelesa 1. mailatik aurrera
- * Musika arloaren tratamendu berezia
- * Ikaslearen jarraipen pertsonalizatua
- * Laguntza gela
- * Bertsolaritza (tresna gisa)

Zerbitzuak

- * Jantokia
- * Kirol Eskola eta Osasun Saila
- * Fede Heziketarako Saila
- * Gabinete Psikopedagogikoa
- * Orientazio Saila
- * Mediateka
- * Fotokopia




- * Hezibideko partaidea
- * Gipuzkoako Ikastolen Elkarteko kidea

Izenemateko epea zabalik

Arrasate Pasealekua 10
Telefonoa: 790411

Tituluen banaketa Eskola Politeknikoan

Joan zen asteartean banatu ziren Eskola Politeknikoan hirugarren mailako modulo profesionalen lehen promozioiko tituluak. Ikastaro honetan, bi prestakuntza desberdin eman dira: oinarrizko prestakuntza eta berezia. Kursoaren arrakasta aztertzeke, ikasle artean inkesta bat egin dute. Azkenengo emaitza ontzat jo da. Ikasle hauen % 40ak ikasketa unibertsitarioekin jarraitzea espero du. Bestalde eta inkesta oinarritzat hartuz, datorren promoziorako gauza batzuk aldatu eta beste berri batzuk sartuko dira.



ZORIONAK EZKONBERRIEI

Francisco Javier Castaño & Isabel Manzano. Martxoaren 14ean. Zibilez.

Ramon Blanco & M^a Araceli Gutierrez, Martxoaren 14ean. Zibilez.

Francisco Fernandez & Isabel Carmona. Martxoaren 21ean. Elizaz.

ONGIETORRIA JAI OBERRIEI

Jon Ariznabarreta Mujika, martxoaren 16an.
Nerea Mendizabal Agirre, 16an.
Elena Azkarraga-Urizar Jauregi, 17an.
Danel Mazmela Etxabe, 17an.
Martxel Balanzategi Gutierrez, 18an.
Laura Garcia Andres, 19an.
Gontzal Lorenzo Martin, 19an.
Garazi B. Barberan Garai, 22an.

Txandaka

KARITATEKO MERTZEDARIA LEKAIMEAK SANTA AGEDAKO OSPITALE PSIKIATRIKOAK

1982. urtean Ospitalaren eta Ikaste-txearen ardura hartu zuten Mertzedariak; geroago "Tuberkulosiaren aurkako Industri-Zerbitzuak" ardura ziren.

100 urte hauetan zehar, Aita Fundatzaileak hainbeste irakatsi zien hura adieraziz jarraitu nahi izan dute Mertzedaria Lekaimiek Arrasaten: gaisoaren garraztasunak ezabatu, malkoak xukatu, hilzorian dagoenaren azken asperena jaso; gizateria behartsu, gaixo, baztertu eta erlijio-heziketarik gabearen onerako egin daitezken lan guztietaz arduratzea.

Horregatik, gure Aita Fundatzailearen aholku horiek jarraituz, Kristo imitatu, denei on egiten 'eta gaisotasun eta gaitz oro sendatzen' pasa bait zen. Fundatzaileak berak ere, granadar zenez, ezagutzen zuen San Juan de Diosen obra eta Sainduaren eguna ospatzen zen baten panagetiko bat egin zuen **Karitateaz** hitzeginez, San Juan de Dio-



Tere Lagunas
(*)

sek bezala gure fundatzaileak ere oso maite bait zuen. San Juanen ordenakoak ere (euren Konstituzioek erakusten dutenez), batez ere ahulen eta gaixoen sufrimendu eta beharren zerbitzura emanak daude.

Guk ere (Anaien eskariz), kezka berberak konpartitu nahi genituzke eta horrela gaude 1980tik; gaur egun, bat dago zaharren arloan eta bestea oligofrenikoetan eta beste batzuk erropategi eta labandariaren ardurarekin.

Gaisoren pastoralaz ere arduratzen gara Kapeilauarekin eta zentruko beste partaide batzuekin batera. Eta gure zerbitzu, maitasun eta adiskidetasunarekin, gaixo horiei bizimodua piska bat atseginago egiten saitzen gara, izan ere gizarte honetako sektorerik behartsu eta baztertuenetako bat dira eta.

(*) SANTA AGEDAKO MERTZEDARIA

HUETO Doktorea

Eztarria, sudurra, belarriak

Ordua eskatzeko: 79 81 11
79 81 00

Olarte kalea, 43 Arrasate



J. Ramón Otamendi

HARATEGIA

Ferrerias, 20 • Tel. 79 62 28

ARRASATE



Juan Mari Mendizabal eta Mikel Gorosabelek eskaini zuten prentsaurrekoa

AEKjira ikusgai igandera arte

Erakusketaren inguruan hainbat ekitaldi antolatu da

Atzo arratsaldean inauguratuta igandera arte, eguerdiko 12etatik 2etara eta arratsaldeko 6etatik 8etara, arrasatearrek AEKjira izeneko erakusketa ikusteko aukera izango dute, Frantziakotarren erakustokian. Pasa den asteartean Juan Mari Mendizabal AEKko Gipuzkoako arduradunak eta Mikel Gorosabel Arrasateko euskaltegiko arduradunak eskainitako prentsaurrekoan adierazi zutenenez, AEK Jira erakusketa ibiltariaren helburu nagusia AEKren eguneroko lanaren berri ematea litzateke, "herri-dinamikan oinarritutako helduen euskalduntze eta alfabetatze lanaren berri, hain zuzen". AEK Jira, nazio mailan antolatutako erakusketa ibiltaria, 25 panel informatibok osatzen dute batez ere; paneletan AEKren historia, historian zehar egindako aportazioak, argitaratutako materiale didaktikoa, metodologiaren garapena,

ateratako txartelak e. a. ikusi ahal izango dira. Panelez gain, erakusketan bestelako gauzak ere izango dira, mahaia material ezberdinekin, bitrinak eta bideoak, eguneroko iharduera nolakoa den azaltzen lagunduko duen bideoa.

AEKk euskarari egindako aportazioa erakustez gain, AEK Jiraren beste helburuetariko bat herrietako jendearen partehartzea lortzea litzateke eta ondorioz erakusketaren inguruan hainbat ekitaldi antolatu dira: larunbat arratsaldean umeentzako jolasak eta; igandean, arratsaldeko 7etan, erromeria Txinparta taldearekin eta apirilaren 3an rock-kontzertua gaztetxean EH Sukarra, SS 77 eta Sutagar taldeekin.

Erakusketa Euskal Herri osoan hiru hilabetetan zehar izango da ikusgai eta bukatzeko Iparraldean AEKantuz antolatuko den moduan, Hegoaldean AEKnapada burutuko da.

Usteak uste

Herri honetan euskararen alde izan diren ekimen guztiak herriarengandik sortu dira. Horra hor ikastolak, euskalduntze eta alfabetatze prozesua... Beste garai batzu ziren, esango du norbaitek, orduan ez zegoen euskal instituziorik. Eta egia da. Egia da ez zegoela euskal instituziorik, baina beste garai batzu. Euskal instituzioak izan ondoren ere, euskaldunek egindako hainbat errebindikazio-ekintzaren ondoren lortu zen euskal telebista.

Komunikabide mailan bagenuen irrati eta telebista, baina egunero kioskora joan eta erderaz pentsatu eta idatzitako egunkaria erostera behartuta geunden. Eta berriz ere herriaren ekimenak sortuko du Egunkaria.

Hamabost hilabete pasatu dira. Badirudi hasieran instituzioek zituzten susmo txarrak gaindituta egon behar liratekeela, hasieran ikusten zituzten mamuak desagertuta. Baina ez da horrela. Gure kultura sailburuak, bere subjektibotasuna ukatu gabe, oraindik mamuak ikusten dituela eta, Egunkariak ez duela laguntzarik izango esan du. Alde batera utzirik honek kultura sailburuaren mailari buruz adierazten duena, garbi geratzen dena gauza bat da: guk geuk, euskaldunok, mantendu beharko dugula egunero kioskoan Egunkaria.

Erronka gurea da, eta Martin Ugaldek dioen bezala, merezi dugu egunkaria bat geure hizkuntzan.

AMAIA JAUREGI-ARRABURU

URONDO
elektrizitatea



- * Elektrogaiak
- * Instalazioak
- * Automatismok
- * Argiztapena
- * Bobinaketak
- * Proiektuak

Nafarroa etorbidea, 11 Tfnoa: 79 78 15 ARRASATE



SAMEGO
GARBIKETAK

Uriburu, 24
ARRASATE
Tfnoa: 79 70 39

Oporrak gutxitu fisiko eta sensorialentzat

Aurreko urteetan egin den bezala, elbarritasun fisiko, organiko eta sensoriala duten pertsonentzat Gutxitu Fisikoen Federazio Koordinatzaileak bidai programa antolatu du. Bidai programa honetan parte hartu nahi duen edonork, eskaria Udaletxeko Gizarte Ongizate sailean egin dezake; informazio zabalagoa jaso nahi duen edonork ere gauza bera. Dena dela, lehenbait lehen beharra dago, izena emateko epea martxoaren 30ean bukatzen da eta, astelehenean hain zuzen ere.

Larrea etxebizitzetako planoen banaketa

Asteartean Udaletxean izandako bilera Larreako etxe berrien planoak eman ziren ezagutzera. Honezaz gain, pisoen ezaugarriak ere zehaztu ziren. Informazio guztiarekin foiletin bat banatu zitzairen bertan bildutakoek. Bestalde, pisuen prezioa eta konstruktorearen izena maiatzean jakingo da.



Ikastorotako bat tapizetzari buruzkoa da


“Emakumea eta autoenplegua”

Eusko Jaurlaritzaren eta Kutxaren laguntzaz



Famili eta Gizarte heziketarako zentruak, aurrera darrai “Emakumea eta autoenplegua” kurtsoaz. Urrian hasi zen eta aurrera ateratzeko Eusko Jaurlaritzako Lan Saila eta Gipuzkoako Kutxaren laguntza izan dute.

Emakume langabetua izan eta disonibilitatearen baldintzarekin, egun batzutan 7 ordu izaten direlako, 60 emakume aurkeztu ziren. Azterketa eta elkarrizketa pertsonal baten bidez, 19 aukeratu ziren. Hiru berezitasun programatzuz, bakoitzak bat izan zuen aukeratzeko: tapizeria, osteleritzako

zerbitzuak eta promozio komertziala. Era berean, hauetariko bakoitza beste hiru azpisailetan banatzen du; gaur egun motibazio etapa gainditu ondoren, prestakuntza sozio-laboralean ari dira. Hirugarren etapa kualifikazioa izango da. Gaiaren arabera, zentruan, eskola tailerrean edo Eskoriatzako Irakasle eskolan izaten dira klaseak. Irakasle profesionala da, Eusko Jaurlaritzakoa, Irakasle eskolako edo zentruko beste batzutan. Kurtsoaren 650 orduak bete ondoren, bakoitzari bere titulua eman goko zaio.



SEGURTASUN-INJINERUTZA



Zure denda, lantegia, etxea, etab. **BABESTEN** ditugu **LAPURKETA** eta **SUTEEN** aurka
Legutianoko aldea, 35 Tfnoak: 26 34 77 eta 26 33 44 GASTEIZ

I R T A B E R N A

Ferrerias kalea
ARRASATE
Tfnoa: 79 71 80



Gikobalun eginiko azterlana

Santa Barbaran gaztelua aurkitu

Gaztelua bazela frogatzen dute aurkitutakoek

Arkeolan elkarteko partaide batzuk Santa Barbarako gazteluaren haserria aurkitu dute. Konkretuki, gazteluaren orma eta dorre batzuekin topo egin dute ikertzaileek. Eguraldi txarraren ondorio arkeologi lanak bertan behera gelditu dira aste honetan. Datorren astean espero da aurkitutako zatiaren jatorria eta data zehaztea.

Santa Barbarako gazteluaren izaerari buruz zurrumurru asko izan da. XVII. mendean Santa Barbara izeneko ermita eraiki zen bertan zeuden zaharkinei izen

bera jarritz. Hala ere, ez dago historian zehar, gazteluaren izaera zehazten duen datu fidagarririk, baina leizendako gazteluarena egia zela frogatu egin da.

Arkeologia lanak, Udalak aurreikusitako parkea urbanizatzeko lanen barne koka daitezke. Foru Aldundiak egun batez geldierazi zituen lan hauek, arkeologi intereseko zerbait aurkitzeko aukera ikusten zelako. Hala ere, obren azterketa egin ondoren, ez zen aurrekoa froga zezakeen ezaugarri argirik aurkitu, aste honetara arte.

❑ PSOEk, mozioa errekurritu

Pasa den martxoaren 6an, Salto del Negroko presoaren egoerari buruz Senideak aurkeztutako mozioa onartu egin zen Udal plenoan. Eta orain errekurtsio bat aurkeztu du PSOEk akordio honen kontra. Arrazoiaren artean, aurreko bozketa legalitatekin kanpo egin zela adierazten du. Horien arabera, berdinketa egon zenez, (10 botu kontra eta beste 10 alde); alkatearen botuak balio izateko beharrezkoa zen bigarren botazioa egitea.

❑ "Ecomovil" programa bukatu

Datorren apirilaren 3an, ostirala, CADEMek amaiera emango dio "Ecomovil" programari. Otsailaren 10ean jarri zen martxan eta ordutik 300 ibilgailu baino gehiago pasa da. Udal biltegiko etxabearen kotxelekuan dagoen Diagnostiko Zentruan egiten ari dira azterketa hauek. Ordutegia goizeko 10etatik 13etara da eta arratsaldetan, 3.30etatik 6.30etara.

❑ ARKOko bilera

Datorren asteartean, martxoak 31, Arrasate Komunikabideak-en (ARKO) batzar nagusia izango da AEDren lokaletan, arratsaldeko 7etan. Aztertuko diren gaien artean, sorrerako bilerako akta onartzea, gestioaren berri ematea, ohorezko bazkide berrien proposamena, Estatutuetoako zenbait xehetasunen aldaketa, Zuzendaritza Batzordearen finkapena eta Galde-erantzunak.

LANDALUZE

AHATE-PRODUKTUAK
TERRINE DE FOIE BLOC
PARFAIT MEGRET CONFIT

ETXEAN EGINIKO
AHATE-UR-DITZAPIKOA

Iturriotz, 7 ARRASATE Tfnoa: 79 14 86

Gabriel Elorriaga Dka.

Loditasuna • Zelulitia
Zelulolipolisiaren
tratamendua

Santa Kruz, 24-1ª (1ª C Eskailera)
 ARETXABALETA Tfnoa: 79 13 54

Altzariak
 Diseinua
 Apainketa

M ARENAZA


Bizkai, 1 ARETXABALETA Tfnoa: 79 08 07



Oñatiko goimailako ostalaritza eskolako lehen promozioko **22 ikasle** eta **2 irakasle** Frantziako **Cognac** herrialdean izan dira eta hango *Gamus* eta *Lovis Royer* bodegekin harremanak hasi dituzte. Honez gain, beste zenbait ekintza burutzeko asmoa ere badute; Getariako txakolinaren instalazioak bisitatu, Arabar Errioxako Remelluri bodegetara joan...



Identitate euskalduna aztertzeko hitzaldien barne, pasa den asteartean **Imanol Murua** izan zen Eskola Politeknikoan. Kasu honetan gipuzkoar ikuspegitik aztertu zuen gaia. Maiatzaren 7an bukatuko da zikloa.




Udaletxeko eskilaretan hezetasun arazoak izan direla eta, konpontzen lanean ari dira orain. Argazkian ikusten denez, tubo eta urodi batzuk ezarri dira eskailerapean, horman dagoen hezetasuna ateratzeko helburuarekin.

**Bodisca s.l.**
Zeramikazko pobimentu eta gaineztaldurak

**Zeramikazko pabimentu eta
gaineztaldurak
Zatoz ireki berri dugun lokalera.
Atseginez hartuko zaitugu.**

Otalora z/g. Zarugalde, 3
Tfnoa: 79 65 25 ARRASATE



**Elektroinjekzio
Zerbitzua**

**ARRASATE
KONPONKETAK**

Zaldispe kalea, 5
Tfnoa: 79 95 41
ARRASATE



▲
Ramon Ramilak, Udala inguruko baso batean **gerra denborako obus txiki bat** aurkitu eta Ertzaindegian abixu eman zuen. Ertzaintza bertara joan eta Arkautera eraman zuen, indargabetu zezaten. Ramonek adierazi zuenez, susto izugarria hartu zuen aurkitzean, nahi gabe ostikoz jo zuen eta.

Egun eguzkitsu eta zoragarri batzuen ostean, aste honetan izan dugu **elurra ikus- teko aukera** ere. Ia ia herriko kaleetara heldu zaigu, baina oraingoan behintzat ezin izan dugu kalean elurrik zapaldu. ▶



txutxumutxuak

Izen
PROPIOAK

● **Jose Luis**

González, 49 urteko arrasatearra da Elektronikako Gerente berria. Kooperatiba barruan hainbat postutan egin du lan orain arte: idazkari tekniko, kontseilu errektoreko lehendakari, Urkide taldearen zuzendari eta azken 8-9 hilabetetan Fagorreko kalitate osoaren zuzendari izan da.

● **Juan Mari**

Fuentes, Extremadurako Almendralejo herriko Alkate Ordea, ATB bisitatzen izan da aste honetan. Dirudienez, Almendralejoko Udala ATBren antzerako zerbait egin nahian dabil eta hemengo esperientzia ikusi nahi izan zuen. Hemengoaz txundituta, laster Extremaduran ATV sortuko zela adierazi zuen.



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAZKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55



▲
Ligallo de Fablans de L'Aragones elkartekoak hemen izan ziren. AED eta Udaleko euskara arduradunekin izan ziren, hemen euskara berpizteko égin den ahalegina ezagutzeko. Dirudienez, Aragonen ere bertako hizkuntza, aragoiera berreskuratu nahi dute.



Berriro ere zentzugabekeriaren berri eman behar fotodun-tziaren bidez, oraingoan Almenen gertatutakoa. Almeneko ikasle eta irakasle talde batek hainbeste lan eta izerdirekin jarritako negutegiak egun batean apurtu bait dituzte. Helburu bakarra, apurtzea. Gero eta lotsagabekeria handiagoak ikusten dira.



▲
Pasa den asteartean Guatemalako Nekazari Komunitateak hitzaldi bat burutu zuen Monterronen. Ejerzitoarengandik ihes eginiko talde honek euren esperientzia pertsonala kontatu zuen. Emaillea **Sebastian Ceto** izan zen.

○ HITZALDIAK ○

Pakea gaur Euskal Herrian

Kristautasunetik nola gizarteratu pakearen beharra



J. M^a Astigarraga


- Apirilaren 1ean J. M^a Astigarraga (Parrokoa)
- Apirilaren 2an Martin Orbe (Apaiza)

Non: Udaletxeko Pleno Aretoan
Arratsaldeko 7etan




Martin Orbe





Aurrekontuak 92

Zirriborroa



1992ko UDAL AURREKONTUAK

Udala	3.009.091.000 ..	(iaz baino %14,55 gehiago)
AUKEA	152.047.000	(iaz baino %9,76 gehiago)
Iturbide Egoitza	145.841.000	(iaz baino %6,58 gehiago)
Aurrekontu orokorra	3.154.185.000	(iaz baino %14,48 gehiago)

SARREREN AURREKONTUA

1.KAP. Zuzeneko zergak	372.575.000	%17,11
2.KAP. Zeharkako zergak	70.000.000	%5,26
3.KAP. Tasak, etabar	373.925.000	%12,43
4.KAP. Transferentzia arruntak	1.217.368.000	%40,46
5.KAP. Ondarezko sarrerak	17.000.000	%0,56
6.KAP. Inbertsio errealak Inorenganatzea	163.418.000	%5,43
7.KAP. Kapitalaren transferentzia	411.668.000	%13,68
8.KAP. Finantz aktiboan aldaketa	7.500.000	%0,25
9.KAP. Finantz pasiboan aldaketa	375.637.000	%12,48
Guztira	3.009.091.000	%100

GASTUEN AURREKONTUA

1.KAP. Pertsonal-gastuak	541.942.000	%18,01
2.KAP. Zerbitzuak eta ondasunen erosketak	376.192.000	%12,5
3.KAP. Maileguzko interesak	89.390.000	%2,97
4.KAP. Transferentzia arruntak	492.409.000	%16,37
6.KAP. Inbertsioak	1.286.797.000	%42,76
7.KAP. Kapitalaren transferentzia	159.500.000	%5,3
8.KAP. Finantz aktiboan aldaketak	7.500.000	%0,25
9.KAP. Mailegu amortizazioa	55.360.000	%1,84
Guztira	3.009.091.000	%100

IOSEBA KONTENEDOREAK




Uriburu, 23. 4.a eskuma.
Tfnoa: 79 61 18

ARRASATE

ARRASATE
PRESS



77 05 65

**GASTUEN AURREKONTUA SAILEZ-SAIL****GOBERNU-ORGANUAK**
30.402.121 (%1,01)

Errepresentazio gastuak eta Alkatearen soldata	24.302.121
Argitalpenak	3.000.000
Gastu bereziak	2.000.000
EUDEL	750.000
Dietak eta bidaiak	350.000

KULTURA ETA KIROLAK
406.071.409 (%13,49)

Santa Barbarako urbanizazioa	35.000.000
AUKEAko inbertsioak	38.000.000
AUKEAren defizita	91.586.000
Amaia Antzokiaren birmoldaketa	70.000.000
Ferixalekuko Pilotalekua	75.000.000
Musakolako kiroldegiko inbertsioak	25.000.000
Ospitale Zaharraren berriztapena	50.000.000
Pertsonal gastuak	32.665.409
Kultura Batzordearen subentzioak eta ekintzak	20.410.000
Herriko Jaiak	21.000.000
Monterron, Amaia eta Ludotekako iharduerak	10.395.000
Arte ekintzak	2.450.000
Txikilandia	2.005.000
Arrasate aretoaren ekipamendua	750.000
Jose Letona beka	800.000
Mojategiko atletismo pista	20.000.000
Arrasate Musikal	36.000.000

HEZKUNTZA
271.089.976 (%9,01)

Ikastetxeen iharduera	58.285.000
Pertsonal-kostuak	23.579.976
Ume-Zaintzaren eraikuntzarako aportazioa	29.500.000

Inbertsioak	19.875.000
Injinerutza Eskola Nagusiaren proiektua	35.000.000
Ferixalekuko ikastolaren eraikuntz. subentzioa	50.000.000
San Viator txikiko obraren subentzioa	40.000.000
Ohizko transferentziak	14.850.000

OSASUNA
163.883.635 (%5,45)

Iturbide Egoitzako defizita	57.943.000
Iturbide Egoitzako inbertsioak	6.000.000
Pobretasun-plana	26.850.000
Pertsonal-kostuak	24.286.426
Etxez-etxeke laguntza	26.500.000
Drogomenpekotasun-Zerbitzua	8.556.280
K.I.U.B.	1.827.000
Laguntzak	593.600
Hirugarren adineko ekintzak	8.525.329
Emakumearentzako ekintzak	1.000.000
Batzordearen ekintzak	1.802.000

HIRIGINTZA
147.099.100 (%34,80)

Kanposantu berria	200.000.000
Ondare patrimonialaren erosketa	90.000.000
Pertsonal gastuak	54.782.100
Biltegi eta Udal eraikuntzen mantenimendua	2.500.000
Ingurugirorako laguntzak	5.192.000
Roneo inguruko aparkalekua	47.625.000
Azoka plazaren berriztapena	38.000.000
Argiteria publikoa	5.000.000
Bideak asfaltatzea	7.000.000
Gesalibar plazaren urbanizazioa	7.000.000
Ingurugiro-inbertsioak	40.000.000
Hiri-zaharra eta San Andreseko PERIa	25.000.000
Bide publikoetako urbanizazioak	15.000.000

**Umeentzako
moda**

Ferreries Kalea, 34
ARRASATE Tfnoa: 79 97 86

**ARRASATE
PRESS****77 05 65**



GASTUEN AURREKONTUA SAILEZ-SAIL

Lorategirako inbertsioak	7.000.000
Birlandaketak	6.000.000
Udal ondareko inbertsioak	23.000.000
Ura eta estolderia	44.000.000
Hiri-altzariak	4.000.000
Semaforoak	5.500.000
Uherkapeko horma	160.000.000
Gurea eraikina botatzea	10.000.000
Aparkalekuak	2.500.000
Zeharkaleko etxebizitza	20.000.000
Lansari teknikoak	45.000.000
Topografia	15.000.000
Kooperazio-lanak	50.000.000
S-3 sektorearen urbanizazioa	40.000.000
Exekuzio subsidiarioko lanak	8.000.000
Eroski-Roneo espaloia	5.000.000
Industri promoziotarako inbertsioak	50.000.000
Epaitegiaren berriztapena	15.000.000

PERTSONALA 229.716.493 (%7,36)

Pertsonal gastuak	147.694.160
Ondasun eta zerbitzuak erostea	42.772.333
Lanbide heziketa ikastorea	20.000.000
Inbertsioak	11.500.000
Soldaten aurrekina	7.500.000

AUZOAK 75.394.174 (%2,51)

Mendi-nekazaritzako inbertsioak	25.100.000
Inbertsioak	20.320.200
Auzoen mantenimendu arrunta	11.234.940
Landa-bideak	12.500.000
Auzoetako jaiak	6.239.034

ZERBITZUAK 486.891.260 (%16,18)

Pertsonal gastuak	154.847.534
Kale garbiketa	79.500.000
Zerbitzu mankomunatuaren kuota	90.034.726
Parke eta lorategien mantenimendua	37.300.000
inbertsioak	15.650.000
Argiteria publikoa	22.050.000
Ur-zerbitzurako erosketak	19.800.000
Gainontzeko zerbitzuen funtzionamendua	67.709.000

EUSKARA 142.051.413 (%4,72)


Pertsonal gastuak	75.918.876
Euskara Batzordearen subentzioak	47.745.228
Euskaltegiaren iharduera	7.370.000
Euskera Batzordearen ekintzak	7.800.000
Bekak	1.217.309
Bapateko itzulpen ekipamendua	2.000.000

GAZTERIA 11.741.082 (%0,39)

Subentzioak eta Batzordearen ekintzak	7.000.000
Pertsonal gastuak	3.865.402
Ondasunak erostea	875.680

FINANTZ ZORRA 144.750.305 (%4,81)

Maileguzko interesak	89.389.780
Maileguzko amortizazioak	55.360.525



NUTRISAN

Kale Aldea, 11 etxabea ARRASATE Tfnoa: 79 65 78

- Zentru Medikoa
- Nutrizioa
- Estetika

Kurtzebarri Eskolak umeak matrikulatzeko epea zabaldu du!!!

Alderdi guztietatik begiratuta, Ikastetxe honek eskaintzen duen aukera zabala kontuan izanik, zuen haurren behar guztiak betetzeko osatua dagoela uste dugu.

- **Kurtzebarri Eskolak eskaintzen ditu:**

D eredua: Haur euskaldunentzat
8. mailara arte

B eredua: Murgiltze eredua,
haur erdaldunentzat
Guztiz euskaraz ematen
dena, hurbiletik prozesua
jarraituz eta ebaluatuz.

- **Matrikulazioa**


Epea: martxoak 23tik apirilak 14ra arte

- **Ordutegia**

Goizeko 9etatik, arratsaldeko 6.30etara arte

- **Non**

Kurtzebarri Eskolako zuzendaritzan



*Zure umeak
Kurtzebarri Eskolara!*

BULARREKO PATOLOGI UNITATEA

Mamografia

Gune susmagarriak aurkitzea.

Gune susmagarrien ikuspegi zabalagoak.

Bularreko ekografiak.

Bularreko tumoreen zitologia.

Arrasaten bertan, kanpora joan beharrik gabe, egin ditzakezu bularreko gaitz guztien diagnostiko klinikoak, erradiologikoak, ekografikoak, termografikoak, zitologikoak, laborategikoak, etab.

GINEKOLOGI

KONTSULTATEGIA



DK.ak: CRISTOBAL, ESTOMBA, GOMEZ, MURGIENDO, OTALORA, RUIZ.

Zerkaosteta, 17 etxabehea. ARRASATE Tfnoa: 79 20 18

Maite Iturbe
arrasatearra
1984tik ETBn ari
da lanean.

Ordutik hona ETB hazi den moduan, Maite Iturberen ardurak ere gehitu dira. Izan ere, ETBko produkzio-zuzendaritzaz arduratzen bait da Maite gaur egun.

— **Aspalditik ETBn, ezta?**

— Bai, 84ean hasi nintzen lanean. ETBk produktore izateko oposizio batzuk kaleratu zituen, aurkeztu eta lanpostua lortu nuen. Gero, 86an barne-produkzioaren zuzendaritza eman zidaten eta 89an produkzio zuzendaritza hartu nuen.

— **Eta zer ikasi behar da produktore izateko?**

— Beno, ni ekonomilaria naiz eta badira beste batzuk injenieriak direnak ere. Oñatiko ETEOn ikasi nituen lehen hiru urteak eta beste biak Sarrikon. Lana nola egin ETBn bertan ikasi nuen, eguneroko dinamikan; azkenean horrek du baliorik handiena, norberak hartzen duen esperientziak.

— **Zer egin behar du produktore batek edo produkzio-zuzendari batek?**

— Nire lana, aurrekontu baten arabera eta epe baten barruan programak egiteko bitartekoak lortzea dela esango nuke, kanpo eta barne produkzioari dagozkienak. Zehatzago esateko, gonbidatuak lortu, behar den pertsonala kontratatu, sariak lortu, publikoa ekarri, dekoratuek arduratu, artistak kontratatu, bitarteko teknikoak alokatu... nolabait guzti hori koordinatzea izango litzateke nire lana, beti ere zenbat diru gastatu daitekeen jakinda.

— **Zer izaten da zailena?**

— Lanik handiena pro-

Maite Iturbe

ETBn aspalditik kamara osteko lana egiten



gramak martxan jartzea da, aurrez egin behar diren negoziaketak eta kontratazio guztiak eramaten dute denbora gehien eta nolabait, gogorrenak izaten dira. Behin programak martxan jartzen direnean, askoz ere samurragoa izaten da aurrera ateratzea. Zentzu horretan, programa konplikatuenak ETBtik kanpo egiten diren espektakulo eta dramatikoak izaten dira, horien kontratuak ahalik eta baldintza onenetan lortzeko asko negoziatu be-

har izaten dugu eta.

— **Eta ekonomilari baten zat lan egokia da?**

— Nire ustez bai, eta interesgarria gainera, hasieran sinpleegia izan badaiteke ere. Ekonomilariak, kasu honetan produkzio-zuzendariak, aurrekontu guztia eramateaz gain, lana antolatu behar du. Formazioak garrantzi handia dauka, baina negoziatzen jakiteak eta kontrakoak zer nahi duen jakiteak ez txikiagoa. Era berean, giza-harremanak ondo eramaten

jakin behar da, lan desberdinak koordinatzen eta batez ere, ondo antolatzen. Antolakuntza ona ezinbestekoa da.

— **Sartu zinenetik asko aldatu da ETB?**

— Noski, onerako eboluzionatu du, jendeak esperientzia hartu duen heinean profesionalizatu egin da, eta gaur egun ikusleari eskaintzen zaion telebistak ez du zer ikusirik hasieran eskaintzen zitzaionakin.

Beste alderdi batetik bada, telebista handituz joan den neurrian esan daiteke asko despersonalizatu dela. Hasieran, politagoa zen; ilusioz betetako lagun talde bat besterik ez ginen, bata bestearengandik ikastera behartuta geunden taldea. Esperientziak eta profesionaltasunak ekarri du despersonalizazio hori, lehen guztiok elkar ezagutzen genuen; orain, jende asko dago eta nahiz eta besteekin lan egitera behartuta egon, departamentu bakoitza berera egitera doala esan daiteke. Dena dela, telebistak onerako eboluzioa izan du.

— **ATB ikusten duzu?**

— Denbora arazoengatik oso gutxitan, ni etxera iristen naizenerako oso berandu izaten da eta. Pelikularen bat ikusi izan dut, informatiboa, lehiaketa... baina gutxi ikusten dudanez ez nago balorazio bat egiteko moduan.

— **Eta ATBko izaera berari zer deritzozu?**

— Bada, herri telebistarena oso ideia ona iruditzen zait. Aurrera begira ez dut uste arazorik izan beharko duenik, komunikabide gutxietan gaur egun espezializazioa jotzen ari bait da. ATBk ikusleekiko gertutasuna du bere alde, gertutasun horrek ematen duen familiartasuna, hitz egiteko moduan ere nabaritzen dena.

— **“Jendeak esperientzia hartu duen heinean, ETBk onerako eboluzionatu du”**

100 urte herrian erroturik

100 urte Arrasaten eta 180 arrasatear karitateko mertzedaria. Urte gogorak, gerra, ospital zaharra, eskola, ikastetxe berria eta aurrera ere herriaren zerbitzuan jarraitzeko prest. Ospatzeko moduko urteurrena da. Urte askotarako.

Orain dauden mojek za harragoek kontatutakotik dakite haserako urteen berri. "Arrasaten baren omen zen gizon bat andaluz batek ordena berri bat sortu zuela jakin zuena, eta han Bergara aldeko neska batzuk edo sartuak zirela. Arrasaten ordurarte serorak zeuden, sekularrak, elizak zainitzeaz eta arduratzen zirenak. Nazaretoa zeukaten, eta baita joan etorrikoentzako gaixoetxea ere". Lehengo mertzedariak 1892an iritsi ziren Gatzagainera trenean eta Arrasateko gizon batzuk irten zitzaizkien bila "eta hasieran etxe partikularretan bizi izan ziren. Orduan ospitala Frantziskotarrena zen eta Mendizabalen desamortizazioarekin alde egin behar izan zuten. Orduan, Isabel II Fundazioa esaten zitzaion eta etxea piska bat konpondu eta han sartu ginen. Urteetan Ospital Santua esaten zitzaion".

Urtetan zehar eskola, dispensarioa eta Ospitalea izan da, eta hala ezagutu dute

mondragoetarrek.

Behartsu, baina zoriontsu

Urte gogorak izan ziren, baina Ospital Zaharreko azken urteetatik ere oroitzen apartak dituzte. "Orduko mojak benetan ziren ahots gabekoen ahotsa", diote eskola, ospitalea eta


dispensarioa batera zireneko garaiak gogoratuz. "Eskola umez beteta egon arren, gaixo batek zerbait behar izanez gero, eskuetatik kentzen ziguten. Norbera goseak egon arren, gaixoek ez zezatela ezeren faltarik izan. Etxeak orduan 160 itukin zituen, geroztik egin dute erretila ere. Ohera joan aurretik

ontziak hustu beharra zegoen eta ohera sarri guardasola zabalik zela joan behar. Guk ezagutu dugunerrako, dotore ere badago orain, eta komunak ere Txatiloaren emazteari esker jarri ziren. Handiak pasa ditugu, baina oso zoriontsu. Herriarrek ere ez zuten ondasun larregirik, baina ospitaleko monjei beti harrera ona".

Herriarrek in bat

Kartzelarena ere egiten zuen gure geletako batek. Munizipalak etorri, eta gaua pasatzeko ekartzen zuten edozein. Jaten eman, garbitu eta lo lekua jartzen zitzairen; hurrengo egunerrate geratzen ziren, nondik norakoak ziren eta zergatik zeuden adierazi gabe, ezer galdetu barik hartzen ziren. "Eta sekula ez zen ezer gertatu, orain pentsatzen jarrita beldurra ere ematen duen arren".

Gustoren gogoratzen dituzten gauzen artean, Arrasateko herriarekiko harremana dago. "Ospital Zaharreko atea beti irekita egoten



Ikastetxe berriaren lehen harria. Altamira baserriko andra-gizonak



1920-25. Umekin Debako udalekuan Sor M^a Luisa, Sor Delfina eta Sor M^a Kruz

zenez, jendea barruraino sartzen zen eta etxekotzat hartzen genituen. Sokari tira egin eta barrura. Bestela ere, kale-kalean geundenez, leihotik herritarrekin berriketan". Diruak urri ziren eta urte guztia Santa Agedako Koruen zain pasatzen zuten. "Halako konpondu beharra dago, baina Koruak etorri arte itxoin beharko da. Beti haren zain, eta diru harekin marabilak egiten ziren".

Aurrera begira

Ordena asko aldatu da garai haietatik "gauza guztien bezala eboluzionatu egin du". Leku faltaz, ikastetxea egiteko lur bila hasi ziren eta Altamira base-errikoak hiru, moja biren aitak, lursail bat eman zieten. Orditik, "pertsonek jatorrak

hezitzeko ilusioz" ari dira lanean, eskualde ospitaleko lana eta Santa Agedakoa ahaztu barik. Pena handia dute Iturbide Egoitza utzi behar izanaz, baina bokazio

urritasunak behartu ditu horretara, beste leku askotan bezala.

Nostalgiaz begiratzen dute iragan denboretara "edozer emango genuke be-

rriz halako esperientziak bizi izateagatik. Barru-barruan gorderik ditugu". Pasatxoak ahaztu barik, itxaropentsu begiratzen diote etorkizunari.



1920an Mertztedarien Eskolan herriko alabak

**Basabe
jatetxea**


**Menu eta afariak
Boda eta banketeak**

Industrialdea
ARETXABALETA
Tfnoak: 79 91 84
77 07 94

**ARRASATE
PRESS**




77 05 65



Arrasate-Bergara norgehiagoka

Deba Arroa txapelketaren barruan, Arrasateko pilotariak ahalegin handiak egiten ari dira, emaitzak zeharo onak ez badira ere. Joan den asteburuan, Antzuola eta Oñatiko taldeen aurka jokatu zuten; antzuolarren kontra jokaturako hiru partiduetatik bi irabazi zituzten eta oñatiarren kontra hirutik bakar bat irabazi. Asteburu honetan, igandean hain

zuzen ere, pilotariak ez dute erraztasun handirik izango, Bergarako taldearen aurka jokatuko dute eta. Jakinaenez, bergararrek betidanik izan dute pilotari talde ona. Dena dela, arrasatearrak saiatu saiaturako dira partiduzuztiak irabazten. Neurketa hori ikusi nahi duenak, igandean goizeko 11etarako Iturripera joatea besterik ez dauka.



Izagirre, kolokan?


Zurumurru ugari entzun da Mondrako entrenatzailearen etorkizunaz. Azken partiduetako jokoa eta lortu diren emaitzak ez dira pozgarriak izan. Mondrako zuzendaritza atzo biltzeko zen. Erabaki bat edo beste bat hartu, animoak Jesus Izagirrentzat, bera bere lana ahalik eta ondoen egiten ari da eta. Zer gertatzen den, orduan? ba betikoa, emaitzak laguntzen ez dutenean lehenik entrenatzaileak ordaintzen duela.

R. Madrid - A. Bilbao Atxabalpen

Dagoeneko Errealak nazioarteko futbol lehiaketa antolatu du, jubenil mailako taldeentzat. Aurreko urteetan lehiaketa hori dela eta, Atxabalpeko futbol zelaian maila handiko taldeak ikusteko aukera izan da. Aurten ez da gutxiago izango eta Real Madrid eta Bilboko Atletik Atxabalpen izango dira. Aipaturako bi talde horien arteko partidua, apirilaren 18an jokatuko da arratsaldeko Setatik aurrera.

Hurrengo partidua

Ez du ez, erre-medio errezik azken ihardunaldietako Mondrak. Orain



bi aste etxean galdu eta gero, joan den astean Azpeitian jokaturako partiduan ez zuen ezer positiborik lortu. Etxetik kanpo galtzea normalizat hartu behar den gauza izanda ere, Azpeititik gutxienez berdinketarekin etorri behar zuten arrasatearrek, markagailuan aurka zuten gola berdintzeko penalti baten aukera izan zuten eta. Zorte txarrez dabilta Izagirreren mutilak, aukerak huts egitea ere normalizat hartu behar den gauza da, baina behar beharrezkoa denean penaltia alde izan eta ez gautzatea, gaizki pentsatzen hasiteko modukoa da.

Azpeitiakoak ez du bueltarik eta hoberena alde batera uztea izango da. Aste honetako partidoari begira, zer esan daiteke? bada mondragoetarrek, teorien behintzat, erraztasun handiz irabazi beharko luketela, sailkapeneko azken taldea bait dator Atxabalpera, Abetxuko taldea.

Eta Mondrak irabazterik lortuko ez balu? Argi ibili beharra legoke, kategoria galtzeko postuak ez daude oso urrutitako. Datorren astean gauzak argiago izango dira.

Kabia altzariak

Gipuzkoako Etorbidea, 28 ARRASATE Tfnoa: 79 27 70




PODIUMA

IKER

ZUGASTI

**Txirrindulari
eta pilotari**



Errepideko bizikleta gainean eta lehian lehen denboraldia du aurtengoa Iker Zugastik eta dagoneko etorkizunean izan daitekeenaren berri eman du. Hamabost urteko arrasatear honek, bi lasterketetan bakarrik hartu du parte, lehenengoan hogeitabostgarren postua lortu zuen, bigarrenan, berriz, hamabostgarrena. Beraz, gorantz doa. *"Ez zait bat ere arraroa egin tropelean joatea, uste baino errazagoa izan da. Gustatuko litzaidake lasterketaren bat irabaztea, baina zaila da, kontuan hartu behar da irteeretan ehun lagunetik gora biltzen garela"*. Arrasatearra, errepideak gorantz egiten duenean moldatzen omen da ondoen. *"Beharbada lehen mendikoan ibili naitzelako; biak desberdinak dira, mendikoa poliagoa eta bestea arrisku-suagoa. Errepideetan nabil lehiaketetan baina mendikorik balego berdin ibiliko nintzateke, batak ez du bestea kentzen"*.

Iker Zugasti pilotaria ere badugu, aspalditxotik gainera. *"Jokätzen orain lau urte hasi nintzen eta gaur egun ere astean bi aldiz entrenatu eta asteburuetako partiduetan parte hartzen dut"*. Ikerrek kantxetako au-

rrekalden jokatzeko du eta horregatik pilota motelak ditu gustokoen, joku gehiago egiteko aukera eskaintzen dutelako. Pilota eta txirrindularitza zeharo desberdinak izanda ere, Ikerrek ez du eragozpenik batean zein bestean aritzeko. *"Astearte eta ostegunetan eta euria egiten duenean pilotako entrenamenduak egiten ditut; gainontzeketan, bizikletan ibiltzen naiz"*.

Kirola eta kirolariak teknika desberdinen aplikazioaz baliatzen direla diote gaur egun, gizakiaren ahalmenen ikerketak, janariaren kontrola, sendagileen azterketak... baina badirudi hori maila batzuetan bakarrik ematen dela, gazteak gutxi gorabehera euren kontu dabiltzala. *"Ez dugu aparteko entrenamendu arrarorik egiten, txirrindu gainean jarri, kilometro batzuk egin eta kitto. Frontoian, berriz, pilotan egin eta nahikoa da. Izan ere, eginaz ikasten da, horixe da onena"*.

◆ **Txirrindulariak ezin aurrean**

Lehen urteko jubenil mailako txirrindulariek Zarautzen izan zuten astebururoko lasterketa. Irteeran 135 txirrindulari eta 61 kilometro egiteko, Orio eta Meagaseko mendateak tartean. Dorletako Ama txirrindulari eskolako mutilak ezin izan ziren lehen postuetan sailkatu. Onenak, Iker Zugasti hamabostgarren eta Zigor Urain hamazortzigarren izan ziren, hirugarren postua lortu zuen txirrindulariaren denbora berean. Beranduago Felix Zugasti, Jose Miguel Elizburu, Josu Gonzalez, Aritz Altube, Ruben Cabero eta Ander Agirreurreta sartu ziren.

◆ **Centraljet gaizki**

Aitor Saez de Viteriren baja nahi baino gehiago ari da nabaritzen Centraljet saskibaloi taldean, larunbatean Musakolan berriz ere galdu egin bait zuen *Atletico San Sebastian* taldearen aurka: 61 - 83. Azken aldiko emaitza kontuan hartuta, arrasatearrek aurtengo denboraldian jokatzeko beste helbururik ez dute. Datorren astean Durangora, Tabirako taldearen aurka jokatzeko.

Neskek ere, nahiz eta ondo jokatu eta irabazteko zorian egon, ezin izan zuten garaipenik lortu eta *Laneder* taldearen aurka 49 - 46 galdu zuten. Asteburu honetan UPV-EHuko taldea izango dute aurrean, larunbatean Musakolan arratsaldeko 6etan.

◆ **Musakola eta Iturripeko alokairua**

Musakola eta Iturripeko kiroldegietako frontoiak, futbito zelaia, tenis eta squasheko kantxak alkilatzekeo interesa duten pertsonen, martxoaren 28an, larunbata, Musakolako kiroldegiko bulegoan goizeko 11etan egingo den bilera egin zaie.



ETXEPARE - BILINTX LIBURUBENDA

Liburuak eta diskoak

Ibargarai, 12 BERGARA Tfnoa: 76 40 50

Arrasateko Ikaste

• *Bagara, ez gara, goazen Ikastetxe Publikoetara* •

Arrasateko Batxilergo Institutua

Ikastetxe publikoa
1992-93 ikasturtea

IKASKETA ESKAINTZA

Batxilergoko 3 kurtso eta UBI.

Ohizko irakasgai ez gain, aukerakoak honakoak dira:

- 1.BBB: Frantsesa-Ingelesa
 - 2.BBB: Erlijioa-Etika / L.T.P.: Elikadura, diseinua, informatika
 - 3.BBB: Aurrekoak eta ondorengoak:
 - A. Zientzia arloa
 - B. Letra arloa
 - C. Zientzia-letra arloa
- U.B.I.: A.Zientzia-teknologia arloa
- B. Arlo bio-sanitarioa
 - C. Giza arloa
 - D. Linguistika arloa

EZAUGARRI OROKORRAK

- Inguruko batxilergo-eskola bakarra
- Euskal eta erdal adarrak maila guztietan
- Irakasgai bakoitzeko irakasle lizentziadunak
- Ordutegi trinkoa: goizeko 8.30etatik arratsaldeko 3ak arte.
- Eskolaz kanpoko ekintzak: zinema, antzerkia, txangoak, argazkilaritza, kirolak: saskibaloia, igeriketa, ski-astea..


EKIPAMENDUA

Informatika gela, fisika, kimika, natur zientzia eta argazkilaritzako laborategiak, gimnasioa, bideo gelak, liburutegia.

AURREINSKRIPZIO EPEA

Maiatzaren 15etik 30era bitartean.
Tfnoa: 79 44 47-37

MATRIKULA DOHAINIK



Musakolako Institutua

Estetxe Publikoak

- *Haurrak haur bereizkeriarik gabe,*
herri eskolan dudarik gabe •

Arrasateko Herri Eskolak

MATRIKULA-EPEA IREKI DA

ESKAINTZEN DUGUNA:

IRAKASTEKO EREDUAK

- Inmertsioa
- D Eredua
- B Eredua

IRAKASLEGO ESPEZIALIZATUA

Informatika, Ingelesa, Hezkuntza berezia,
Soinketa eta Musika.

PEDAGOGIKOKI

Talde multiprofesionala eta
P.A.T. aholkuak.

ESKOLAZ KANPOKO EKINTZAK


Guraso Elkarteen laguntzarekin.
Multikirola, zinemaldiak, esku-lanak,
argazkigintza eta bestelako ikastaroak.
Tailerrak (Kontsumoa, ingurugiroa,
drogomenpekotasuna, sexualitatea, aisia,
goxoki tailerra...)

BESTE ZENBAIT ZERBITZU

Jangela eta garraioa
Laborategia eta Liburutegia

Informazioa osatu nahi baduzu,
dei egin ezazu:

- Erguin: 79 77 74
- S.Andres: 79 00 44
- Musakola: 79 04 49



San Andres



Erguin



Musakola

Deba Garaiko abesbatzen V. Topaketak

San Frantzisko Xabier ikastolak, Arrasateko Udalak eta Lankide Aurrezkiak, Deba Garaiko eskola arteko abesbatzen V. topaketak antolatuta dituzte. Talde bakoitzak gutxienez 15 partaide aurkeztu beharko ditu eta eskola bakoitzak, maila bakoitzeko talde bat bakarrik aurkez lezake. Partehartzaileak eskolaurreko ikasleak eta O.H.O.ko hasiera, erdi eta goi zikloko ikasleak izango dira. Bestalde, hurrek zuzenean sortutako soinuak bakarrik onartuko dira. Guztiak mikrofonorik gabe, eta aparailu elektronikorik ere ez da onartuko. Gainera beharrezkoa izango



da talde bakoitzak bi abesti aurkeztea eta partitura osoa ongi idatzita bidali beharko da, datu zehatz guztiakin: izena eta abar. Talde bakoitzaren izena emateko epea

apirilaren 6an bukatuko da eta San Frantzisko Xabier ikastolan egin beharko da, Gazteluondo kaleko, 4. zenbakian. Sari bezala orogarri bat jasoko dute.

◆ Eskulenen erakusketa Monterronen

Famili eta Gizarte Heziketarako zentruak, bertan egin diren eskulenen erakusketa antolatu du Monterronen. Pasa den asteazkenean hasi eta igandean bukatuko da. Zentruan ematen diren hainbat ikastaröetan, parte hartu duten ikasleen lanak izango dira.

◆ Ibai-Arte elkartearen logotipo lehiaketa

Ibai-Arte erdialdeko merkatarien elkarteak egindako logotipoen lehiaketan lanen bat aurkeztu nahi duenak asteartera arte du epea zabalik. Egindako lana eta lanaren azalpena, Markiegi dendan aurkeztu beharko dira eta lehiaketaren irabazleak 40.000 PTAKo saria jasoko du.

ENTZUN!

HERRIZ HERRI
Larunbatero
11.30 etan

OM 1224
FM 99'8

HERRI Irratia



Radio POPULAR
GIPUZKOA

◆ **AEKjira erakusketa frantzizkotarretan**

Atzo inugaratu zen AEKjira Arrasaten eta aste-bukaeran zehar ere jarraituko dute ekintzek. Gaur Tolosaldeko sagardotegi batean afaria egingo da, interesatuentzat haraino joateko autobusa ere antolatu delarik. Bihar berriz, Seber Altuben, haur jolasak eta herri animazioa izango da. Igandean, arratsaldeko 7etan Txinparta taldearekin erromeria eta azkenik, ekintzei amaiera emateko kontzertua izango da Gaztetxean *E.H.Sukarra*, SS 77 eta *Sutagar* taldeekin.

◆ **Euskararen astea San Andres Herri eskolan**

Astehenean hasi eta gaur arte, euskararen astea ospatu dute San Andres Herri-Eskolan. Egitarauan txiki zein gurasoentzat saioak izan dira. Eskolaurrekoentzat edota hasiera eta erdi ziklokoen zuzenduak, antzerki saioak izan dira egunero. Txikiak Pello Añorgak ipuinak kontatu ditu. Gaur, Herri kirolak izan ondoren, arratsaldeko 4etan izango den txokolatadarekin bukatu dira ekitaldiak.



Jone Astigarraga

Kultura maila igotzeko lanean

Famili eta Gizarte-heziketarako zentruko zuzendaria. Urte askoan zentruaren ibilbidea jarraitu duen pertsona dugu. Emakumearen kultur maila aberasteko sortu zen elkarteak, sektore honetan du gaur ere ikasle kopuru handiena.

— **Hasierako helburu hori duzue gaur ere nagusiena?**

— Bai, emakumearen kultur maila igotzea da helburu nagusia. Uste dugu etxekoak etxetik kanpo ekintza edo aktibitate bat faltan botatzen duela eta horregatik, beharbada denbora pasatzeko, gugana jotzen dute. Hemen, kultura ikasteaz gain, gauza praktikoak ere egiten dituzte: tapizak eta eskulanak.

— **Ikasleen artean, emakumeak dira gehienak?**

— Bai, kopuru handiena emakumeena da, baina arratsaldetan gizonezko batzuk ere etortzen dira, batez ere sukaldaritza eta pintura klaseetara. Talde gehienak mixtoak izaten dira baina emakumezkoak nagusituz, datu zehatzik ez dut, baina gutxigorabehera %80a emakumeak izango dira.

— **Ekintzak antolatzeko**



izaten duzue beste talde batzuekin harremanik?

— Arrasate mailan badaude beste emakume talde batzuk bai, EKIN, Emakumeen Asanbladakoa eta abar, beraiekin harreman puntualak bakarrik izaten ditugu. Kontaktuak pertsonalak izaten dira, esate baterako gu euren ekintzetara joaten gara eta eurak ere etortzen dira batzutan klase batzuk

▼
“Orain ikastaro teorikoak ere antolatzen ditugu”

ematera edo hitzaldietara. Baina oraindik ez dugu izan aukerarik ekintza amankomun bat antolatzeko.

— **Aurrekontu aldetik, zer laguntza mota jasotzen duzue?**

— Mantentze guztia Kutxaren esku dago, beraz ekintza bakoitzean berak ematen digu beharrezko dirua. Probintzian holako zazpi zentru gaude eta Eusko Jaurlaritza, Diputazio eta Emakundetik segun ze kasutan jasotzen ditugu laguntza puntual batzuk. Bestalde, ekintza bakoitzetarako baremo batzuk jarrita ditugu bai ikasle bai irakasleentzako eta ahal den neurrian, saiatzeko gara mantentzen.

— **Etorkizunera begira, baduzue proiekturen bat?**

— Bai, konkretuki badago bat, gobernuko Lan Sailarekin egindakoa. “Emakume eta autoenplegua” izenpean kurtso bat antolatu dugu urrian hasi eta uztailean bukatuko dena. Egunean 4 ordu emango dira eta hiru kualifikazio desberdinetako diplomak banatuko dira. Aurkeztu diren ikasleen artean 19 aukeratu ditugu eta horretarako azterketa egin behar izan dute.

ITSASKI

arrandegia

Arrain freskoa eta jaki izoztuak

Uribe Auzoa
 Arrasate 79 98 94

ENARA
 OSAGARRIAK



Maalako Errabala, 21
 Tfnoa: 79 62 32
 20500 Arrasate



**“EDERTU”
 ileapaindegia**



San Andres auzoa. 79 04 28

Aste.gazte

Gazte eta zaharraren arteko desberdintasunak ugari eta konplexuak izan arren, erloju sinple batek neurtu ditzake.

T. Lino

Bekak

• "Juan de Otaola" arte-sorketa beka. Euskal Herriko Elkarte Autonomoko talde nahiz banakakoei zuzendua. Gaiak: eskultura, pintura, grabatua. Dirulaguntza: 450.000 PTA. Epea: apirilak 30.

Ikastaroak

• Euskal dantza ikastaroa. Lore Gazteak taldearen eskutik. 14 urtetik gorakoei zuzendua. Ostiraletan, 7etatik



8.30etara. Iraupena: San Juanak arte. Plaza mugatuak.

- Argazkigintza hastapeneko ikastaroa. 20 orduko ikastaroa. Apirila-maiatza. Plaza mugatuak.
- Musika ordenagailu bidez. 40 ordu. Apirila-maiatza. Plaza mugatuak.

Ingeles-tituloa

• Cambridgeko Unibertsitatearen "Preliminary English-Test" azterketa-deialdia. Azterketa: ekainak 20, Eibarren. Matrikula epea: apirilaren 15era arte. Matrikula-prezioa: 6.500 PTA.

Nekazaturismoa

• Hainbat nekazarik beren basetxe eta baserrietan ostatu eta mantenuko turismo-zerbitzuak eskaintzen dituzte, oporrak edo asteburuak lasai eta modu desberdinean igarotzeko. Prezioak: 2.500 - 3.500 PTA bitartekoak.

Lehiaketak

• Ikatza-Izadi Zaleak Argazki Lehiaketa. Koloretan edo txuri beltzean. 2 modalitate: gai librea lehena eta "mendia bere herapen osoan" bigarrena. Sariak (mod. bakoitzeko): 30.000, 20.000, 10.000 eta ga-

raikurrak. Lanak aurkezteko epea: apirilak 15.

• *Arte Gaztea* estatu mailako erakusketa. Modalitateak: pintura, eskultura, instalazioa, argazkigintza eta bideoa. Aukeratutako artistek Europar zehar bidai bat egingo dute, eta Gazteriaren Institutuak lanak erosi egingo ditu. Instantziak aurkezteko epea: apirilak 30.

Informazio gehiago:

Gazte Zerbitzua,
77 00 65

• SAN FRANTZISKO XABIER IKASTOLA •

4.000 ARRASATEAR

Kalitatezko irakaskuntza euskaldunaren bermea 25 urteotan.

• **KALITATEZKOA**

Irakaskuntzaren erreformari aurre eginez 16 urterarteko hezkuntza.

• **AUZOAN**

12 urte arte ez duzu auzotik irten beharrik izango.

• **EUSKARAZ**

25 urte daramatzagu euskaraz irakasten.

• **MATRIKULAZIO-EPEA ZABALIK!!**

Martxoaren 27tik Apirilaren 6ra

Gazteluondo, 4 Tfnoak: 79 26 40 ARRASATE

ETXEBIZITZAK

- Eskoriatzan pisua osatzeko neska baten bila gabiltza. Logela bat libre dago. Dei egin 81 66 24 tfnora.
- Hiru pertsonentzako etxebizitza behar dugu Arrasaten. Tfnoa: 79 48 11. Oskar eta Blanka.
- Etxebizitza salgai. Sukalde-jangela jantzia, 3 logela bere armairuekin, egongela, komuna eta 2 terraza. Argitsua, eta bista ederrekoa. Prezio onean. Tfnoa: 79 93 42.
- Lau gelako etxebizitza behar da alokairuan. Tfnoa: 79 33 59.
- Pertsona bat behar da hiru irakaslerekin pisua konpartitzeko. Dei egin ordubateetik 2etara. Tfnoa: 79 71 16.
- Bi oheko logela alokatzen da. Tfnoa: 79 07 73.
- Langile batzuk etxebizitza bila gabiltza Arrasate edo inguruetan. Tfnoa: 77 04 58.
- Etxebizitza salgai Grupo San Juanen. 3 logela egongela-jangela, sukaldea, ganbara. Altzariak ipinita. Dei egin 79 10 47 tfnora.
- Etxebizitza behar dut alokairuan. Tfnoa: 79 51 21.

LANA

- Aretxabaletako Dis-Tel oihaldendak esperientziadun jostuna behar du. Dei egin 79 48 49 tfnora.
- Neska bat behar da ingelesa erakusteko. Tfnoa: 77 10 59.
- Esperientziadun pertsona, nagusiak zaintzeko gertu. Tfnoa: 77 10 59.
- Etxeko lanak egin edo umeak zaintzeko gertu neska gaztea. Tfnoa: 79 99 17. M^a Jesus.
- Andre euskalduna gertu umeak zaindu, etxeko

lanak egin eta pertsona nagusiak zaintzeko. Tfnoa: 79 07 73.

- Neska nahiz emakume euskalduna behar da bi ume zaintzeko eta etxeko lanak egiteko Aretxabaletan. Tfnoa: 79 49 44.
- Ostiral edo larunbatetan ingelesa erakusteko norbait behar dut. Tfnoa: 79 38 01.
- 23 urteko neska gertu etxeko lanak egin edo umeak eta nagusiak zaintzeko. Tfnoa: 79 97 30.
- Fisikako klase partikularrak emateko fisikaria behar da (Euskaraz edo erdaraz). Tfnoa: 79 48 09. Itziar.
- Esperientziadun emakume euskalduna ospitalean gaisoak zaintzeko gertu. Gaez nahiz egunez. Tfnoa: 79 34 51.
- Emakume euskalduna behar da bi ume zaindu eta etxeko lanak egiteko. Dei egin 8etatik aurrera 77 00 50 tfnora.
- Sukaldeko laguntzaile moduan lan egiteko gertu nago asteburuetan. Tfnoa: 79 24 58.
- Pertsona bat behar da ingelesa irakasteko. Tfnoa: 79 72 47.

SALEROSKETAK

- Alpen Kreuzer Super GT kanping erremolke-denda salgai, oso egoera onean dago. Dei egin 945 - 44 50 43 tfnora.
- Zibro-Kamin RCA-86 berogailua salgai. Dei egin 79 57 93 tfnora egunez edo 79 82 28 gaez.
- Monty markako trial-sin bizikleta salgai. Hiru urte t' erdi ditu eta oso egoera onean dago. 35.000 PTA. Tfnoa: 79 01 94.
- la berria dagoen arkoizozkailua eta urte t' erdiko pixu bat eta kutxa erregistradora bat (3 urtekoa) saltzen dira prezio negoziagarrian. Neurriak 1,30 zm. luzeeran, 0,90 zm. altueran eta 0,65 zm. zabaleran. Dei egin asteartetik larunbatera bitartean 94 - 658 34 94 tfnora.

- Eski alpino egiteko bota pare bat salgai. 43a berri-berriak, bi hilabete besterik ez dituzte. Tfnoa: 76 38 72.
- Mendiko Camet bota pare bat (44 zenbakikoak) salgai. Erabili barik eta oso merke. Tfnoa: 76 24 64. Joxemiel.
- Amstrad CPC 464entzako jokuak eta programak aldatuko nituzke. Interesatuek dei egin 79 42 95 tfnora. Sergio.
- la berria dagoen akordeoia salgai. 120 baxu. Beltza. Dei egin gaez 79 80 91 tfnora.
- Txakurkume politak salgai 5.000 PTAtan. Oso politak dira. Tfnoa: 79 90 87.
- Kotxeko gurrupilen kubiarta bi salgai. Oso egoera onean. Michelin MXV2, 185-60-13 neurrikoak Tfnoa: 79 03 88.
- CDU ur-berogailua salgai (Duplex) Fagor, oso egoera onean. Tfnoa: 79 09 52.

DENETARIK

- Lanak ordenadoren inprimatuko nituzke. Dei egin 7etatik 9etara 79 58 72 tfnoa.
- Buzoneoa egiteko prest. Enpresa eta erakundeen iragarkien banaketa egiten dugu. Dei egin goizez 79 35 02 tfnora.
- Ehiza-txakur bat erregalatuko nuke, txertatuta dago, eta urtebete du. Dei egin 76 64 47 tfnora.
- Otsailaren 4ean Urkulun eguzkitako betaurrekoak galdu nituen bostak aldera. Inork aurkituz gero, dei dezala 79 21 50 tfnora.
- Urrezko kate bat topatu dugu kalean, zurea bada dei egin 7etatik aurrera 79 33 35 tfnora.
- Egunero Bilbora joateko kotxe baten tokia behar dut. Tfnoa: 79 31 47.
- Musika talde afizionatu batek teklista behar du. Tfnoa: 73 01 17.
- Urrezko belarritako galdu da. Inork aurkituz gero dei dezala 79 53 21. Saritua izango da.



ARRASATEN HILDAKOAK



Jose Luis Berezibar Agirre,
martxoaren 4ean. 28 urte.

Luisa Ezkibel Garai,
martxoaren 16an. 88 urte.

Luciano Martinez Yague,
martxoaren 19an. 72 urte.

Soledad Madrigal Ferrero,
martxoaren 22an. 86 urte.

Basilio Larrañaga Txintxurreta,
martxoaren 22an. 67 urte.

Maria Azkarraga Zarraoa,
martxoaren 23an. 63 urte.

Maria Arana Ezkibel,
martxoaren 24an. 59 urte.

ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDE DIRA. TESTUA IDATZI ETA BIDALI GURE BULEGOETARA

TESTUA:

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Azoka kalea, 1 20.500 ARRASATE

Tfnoa: 77 08 15

Zer nahiago?

Nieves Garmendia Garmendia okindegikoa

- **Integrala ala zuria?** Zuria, noski.
- **Pelikulak beldurrezkoak ala amodiozkoak?** Beldurrezkoak izan ezik, beste edozein motatakoak.
- **Txakurrak ala katuak?** Txakurrak.
- **Boteilako ura ala txorrokoa?** Txorrokoa normalean.
- **kafea etxean ala tabernan?** Etxean.
- **Bainu jantzia ala bikinia?** Bainu jantzia.
- **Ogitartean, txorizoa ala urdaiazpikoa?** Biak.
- **Aurpegia garbitu, jaikitakoa ala gosaldu ondoren?** Jaiki eta segituan, hemen aurpegi garbia erakutsi behar da eta.
- **Fregatzea ala plantxa egitea?** Fregatzea.
- **Bost duroko berriak ala zaharrak?** Zaharrak.
- **Irratia ala telebista?** Biak ikusten ditut, behar bada telebista gehiago.
- **Larunbat goiza ala astelehen goiza?** Larunbat goiza, asteburuko ilusiotxoia izaten dugu eta.
- **Gari irina ala artirina?** Gari irina, noski.
- **Arrasate ala Mondragoe?** Arrasate.
- **Haserretutakoa, oihu handiak ala aurpegi serioa?** Aurpegi serioa.
- **Fandangoa ala arin-arina?** Normalean ez gara erromerietara joaten.
- **Bidaiatzekotan, Himalayara ala Jamaikara?** Urruti joan barik, Europako herri txikiak ezagutzea gustatuko litzaidake.
- **Isteko ordua ala zabaltzekoa?** Istekoa.
- **Bezeroak, berriak ala ixilak?** Normalak.
- **Erlojua, digitala ala orrazduna?** Orrazduna.



Bertsotan

Arregik Egunkariari dirurik ez

1

Gauza ugari gertatzen dira antipatiko bizitzan Arregi ere horrela dabil gizon zintzo bat bailitzan Egunkariak egon nahi luke diru pixkatzen gerizan nahiz horren bila gabiltzan bera gezurtien gisan ilusioa azkenerarte nahiz ta beti eduki zan Arregirekin ezin liteke itxaropenikan izan.

2

Zertarako den ere ez dakit gure kultur sailburua gure hizkuntza lagundutzea ez du behintzat helburua horrez gainera Egunkariak badauka bere susmoa inguru dena mindua a zer nolako mamua euskaldun denon egunkariari ukatu dio dirua hori egiten duen pertsonak non ote dauka burua?

AINHOA AGIRREAZALDEGI



FANCY

GAZTEEN MODA! Bizkaia Etorbidea, 1 Etxabea ARRASATE Tfnoa: 77 14 24

TTUKUN

Fotokopiak
Enkuadernazioak
Planoen erreprodukzioa
Offseta

Ferrerias, 23

ARRASATE Tfnoa: 79 46 62



1

969an atera zuten argazki hau, La Merced Ikastetxearen inaugurazioaren biharamonean. Bertan ageri diren moja guztiak ez dira


garai hartan hemen zeudenak, baina asko eta asko oso ezagunak dira Arrasaten. Behenengo lerroan esku-matik, Aurelia, Ramonita Morato, Pilar Fox, Maria Luisa Maquinay, Margarita Gonzalez, Mertxe Ruiz

de Eguino, X, Milagros Moreno, Matilde Bolunburu, Pili Velez eta Rosario Saralegi.

Bigarren lerroan ezkerretik, Margarita Rivera, Inmaculada Gimenez, Pilar Flores, Pilar Riglos, Sabina Iriondo, Pilar Bedia, Franziska Otadui, Jabiera Cortes, Antonia Amundarain, Trinidad Goikoetxeta, Celia Ezkurra, Matilde, Maria Luisa Mendizabal, Pilar Arrondo, Concepcion Castillo, Rosario, Magdalena Fernandez, X, Matilde, Sagrario Manzisidor, Ana Mari Abadia, Rosario Sancho,

Kristina Iriondo, Blanca Quintana, Gema Yepes eta Azuzena Barahona.

Goiko iladan, Ana Mari Burgos, Loreto Serrano, Mariasun Elgoibar, X, Mertxe Ramirez, Filomena Abrantes, Felisa Ugalde, X, Margarita Uribetxebarria, Mari Karmen Lafuente, Rosa Mari Bilbao, Mari Jose Telleria, Ana Mari Calvo, Maria Josefa Larraga, Maria Jesus Atiega, Isabel Trokao-la, Jone Miner, Juana Josefa Maeztu, Cecilia Perez de Arriluzea, Alicia Lopez eta Caridad Asensio




EGVZKIGRAF

Grafikagintza. Tipografia. Offset industrialia

Basabe bidea, A-2 ARETXABALETA Tfnoa: 79 29 41

- Liburuak
- Aldizkariak
- Katalogoak
- Liburuskak
- Merkatal inprimakiak
- Bulegoko materiala

Gurutzegramak




Horizontalak

1. Lotsa izaten duena
8. Irten
9. (Ald.) Juanen kontsonanteak
10. Mehe
11. Atzizkia
12. Egiak ez direnak
15. Arrasateko kiroldegi berria
16. Usain
17. Kasik
18. Mintz

Bertikalak

1. Behargin
2. Gauza
3. Titanioa
4. Biguna, xamurra
5. Euririk ez
6. Tutu erdia
7. Ihardun
11. Musika mota
13. Kolore mota
14. Boxeorako toki



JUAN BAUTISTA AGORRIA

BIDEO-EMANALDIA

Goonietarrak

Tokia: Monterron Kultur Etxea


Eguna: martxoak 28, larunbata

Ordua: arratsaldeko 4.30etan

Prezioa: 50 pezeta

Sarrerak: Monterronen

Antolatzailea: Arrasateko Udaleko Euskara Batzordea





ATBketan

Ostegunetan, 9.20etan.

Anne Igaribururen eskutik, arrakastaz segitzen du aurrera ATBketan saioak, ATBren lehiaketa berriak.

Hor aritzen dira norgehiagokan lau lagunez osatutako bi talde, denetik egiten. Eta hori bai, beti umorea lege.

ATBketan. Ostegunetan, 9.20etan.

Asteko filmea

Sherlock Holmes
Detektibe famatuena
marrazki bizidunetan

Egunero
9.50etan

Erreportaiak

8.20: • Merzedarixak
• Udaberria
9.20: • AEKjira
• San Andres Eskola

Asteartean

Txatxaran

Jabi Tramon,
nekazari eta filosofoa

Asteazkenean
9.20etan

Amatiñok, Arrasate Telebista ETBren kompetentzia dela pentsatzen omen du.

Gaizki dabil Amatiño.

Kompetentzia, parekoen arteko lehia ematen denean gertatzen da: kirol, ekonomia edo daena delako arloetan. ETBren helburuak, euskaldunoi jakin erazi zaigunez, herri honen kultura eta hizkuntza sustertzea dira. Arrasate Telebistarenak, nik dakidanez, berdintsuak.

Nola da orduan bata bestearen kompetentzia izatea? Oker dabil Amatiño. Edo, hala ez bada, beldurra hezurretaraino sartu zaio.

ETB babes eta helburu soziala duen medioa izateari utzi eta merkaderren mundura sartzearen ahaleginetan ari dira zenbait medio. Eta ahaleginok ustel gelditu diren arren, lortu dute bai aipatutako mediook nolabaiteko eragina. Ondorioa, ETB kuestionatu egiten dela eta baita bere babes ekonomiko instituzionala ere. Lehia mentalitate sortu da, merkaderren sasi kontextu horretara eraman dute Euskal Herriko medio publikoa, eta hor, nola ez, guztiak etsai; baita Arrasate Telebista bera ere. ETBren helburuak ekonomikoak dira orain, hor bilatu behar du eta, us-tez, bere existentziaren legitimizazioa. Eta kontextu honetan, ATB traba bilakatu da, ikusle-goa kentzen dio eta, herri txiki baten bada ere.

Gaizki daukate dena den politika horrekin ETBn, noizbait gainontzeko medioekin darman lehia horretan ahul agertuko baltz legitimizazio osoa galduko luke eta, nahiz eta berez legitimizazioa hori inkestantzablea izan. ETB karreraren galtzailere irtearen aldeko interesak ugariak dira. Onena, karreraren ez parte hartzea.

ANDONI URZELAI

Programazioa

26

IGANDEA

9.15. **Mondragol.** Mondra-Abetxuko partiduaren ordu erdiko laburpena, Jose Luis Ezkurraren ardurapean.

27

ASTELEHENA

8, 8.30 eta 9etan, **Berriak.** ATBko albiste-emanaldia.

9.15etan, **Mondra Sport.** Arrasateko kirol-munduaren errepasoa, Gerardo Mendizabal eta Mikel Uribesalgorekin.

9.50. **Asteko zinea:** Sherlock Holmes (Marrazki bizidunak).

28

ASTEARTEA

8etan, **Berriak.** 8.20etan, **Erreportaiak.** Erreportaien gaiak, Merzedarixek aurtan Arrasaten betetako 100 urteak, eta Udaberria izango ditugu.

9etan, **Berriak.** 9.15. **Erreportaiak.** AEKjira, eta San Andres Eskolan antolatutako Euskara Astea.

9.50. **Asteko zinea:** Sherlock Holmes (Marrazki bizidunak).

29

ASTEAZKENA

8, 8.30 eta 9etan, **Berriak.** 9.15. **Txatxaran.** Gonbidatua: Jabi Tramon Gesalibarreko nekazari biologikoa eta filosofoa.

9.50. **Asteko zinea:** Sherlock Holmes (Marrazki bizidunak).

30

OSTEGUNA

8,8.30 eta 9etan, **Berriak.** 9.15. **ATBketan.** Arrasatearren konkurtsoa, Anne Igaribururen enkantuz.

9,50. **Asteko zinea:** Sherlock Holmes (Marrazki bizidunak).


31

OSTIRALA

8,8.30 eta 9etan, **Berriak.** Arrasateko albisteak.

9,15. **Ostiral Musikala.** Marta Izagirre eta gonbidatuek armoniaren gainean jardungo dute.

9.50. **Asteko zinea:** Sherlock Holmes (Marrazki bizidunak).



Gure hiriarekin aurrera.

Gure hiriaren garapen sendorako baterako oinarriak jartzen ari gara denon artean, koherentziaz aurrerapen-teknologiak eta giza-gaitasunak bateratuz.


Aurrerapen sozial eta ekonomiko horri bere eguneroko lana erantsi nahi izan dio **MECAk**, oinarrizko lelo honi jarraituz: bezeroarenganako zerbitzu-kalitatea.

Maila guztietan eska daitekeen kalitatea, iritsi nahi dugun bizi-kalitateari dagokiona.

Egunean-egunean hobetu asmo dugun zerbitzua.

Bete nahi dugun helburu nagusi gisa, bezero bat, zu zeu.

Horrela, zure laguntzarekin, gure hiriarekin batera aurrera egiten dugu.



MECA, S.A.

ARRASATE